



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilak 5**

**Vitoria-Gasteiz, 5 de abril de 2011**

## Presidencia

### **CONVOCADAS LAS AYUDAS A LAS PERSONAS COOPERANTES VASCAS Y AYUDA DE EMERGENCIA EN LIBIA**

El Gobierno ha dado hoy luz verde al decreto por el que se convocan las ayudas a las personas cooperantes vascas. En total se han aprobado ayudas por 400.000 euros, que serán distribuidos en dos años: 250.000 euros este año y el resto, 150.000 euros, para 2012.

Estas ayudas, con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda para el Desarrollo, van dirigidas a mejorar la situación de las personas cooperantes vascas en terreno. Se abre el plazo de presentación de solicitudes en la Agencia vasca de Cooperación al Desarrollo. Las ONGD vascas tienen un mes para presentar las solicitudes de ayudas para sus cooperantes.

Asimismo, la Agencia Vasca de Cooperación, aprobó en su Consejo Rector el pasado 30 de marzo, otorgar una ayuda de su línea permanente de emergencia, en materia de Acción Humanitaria, por un importe de 125.000€ a ACNUR.

Se trata de la subvención de un proyecto para la emergencia en Libia, con el objetivo de prestar servicio de auxilio a grupos vulnerables desplazados en la zona de Ras Adjir, la frontera con Tunes. El proyecto incluye la provisión de artículos de higiene, mantas y kits de alimentos.

## Interior

### **TRÁFICO SUBVENCIONARÁ A LOS AYUNTAMIENTOS PARA FINANCIAR ACTIVIDADES EDUCATIVAS RELACIONADAS CON LA MOVILIDAD SEGURA**

- **Invertirá 250.000 euros en actividades, materiales didácticos y formación de especialistas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy destinar 250.000 euros a la concesión de subvenciones a los Ayuntamientos y otras entidades locales del País Vasco para la realización de actividades educativas sobre movilidad segura. Las ayudas se engloban dentro de la política de la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco de colaborar con las Administraciones locales en el terreno de la educación vial.

La Orden del Consejero de Interior aprobada hoy permitirá a los Ayuntamientos vascos acceder a ayudas económicas para llevar adelante proyectos educativos relacionados con la movilidad segura. La iniciativa busca mejorar los niveles de seguridad de la ciudadanía ante el tráfico rodado, para lo que la Dirección de Tráfico considera imprescindible incentivar los programas educativos, especialmente los que se centran en el factor humano, responsable directo de la mayor parte de los accidentes de tráfico.

La partida presupuestaria destinada a estas subvenciones es de 250.000 euros y podrán optar a las mismas todas las actividades educativas dirigidas a peatones, ciclistas, conductores, usuarios de transporte público, etc. También se subvencionarán la publicación de materiales divulgativos que fomenten valores para la movilidad segura y la preparación de especialistas encargados de las actividades educativas.

## Educación, Universidades e Investigación

### **ACCESO A CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL**

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, ha aprobado, en su reunión de hoy, la orden por la que se convocan las ayudas para la impartición de cursos de preparación de la prueba de acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional para el curso 2011-12.

El objeto de esta orden es el convocar ayudas económicas, por un importe global de 235.384 euros, a centros privados concertados para la organización e impartición de cursos de preparación de las pruebas de acceso a ciclos formativos de Grado Medio o de Grado Superior de Formación Profesional para el curso 2011-12, dirigidos a las personal mayores de edad interesadas en acceder a ciclos formación profesional pero carecen de la titulación correspondiente.

### **160.000 EUROS PARA LA CONTRATACIÓN DE INVESTIGADORES**

El Consejo de Gobierno, en su reunión de hoy, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, ha acordado autorizar la concesión de las siguientes subvenciones directas:

130.000 euros a la Fundación Ikerbasque para la contratación indefinida de cinco investigadores de nivel 1, profesor titular de universidad o equivalente, en el marco del Convenio de Colaboración entre el MICIN y el Gobierno Vasco para el desarrollo del Protocolo General relativo al Programa I3.

30.000 euros a la Universidad le País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea para la contratación indefinida de un investigador de nivel 1, profesor titular de universidad o equivalente, en el marco del Convenio de Colaboración entre el MICIN y el Gobierno Vasco para el desarrollo del Protocolo General relativo al Programa I3.

## Educación, Universidades e Investigación

### **514.800 EUROS PARA AYUDAS A LA REALIZACIÓN DE CURSOS DE IDIOMAS EN EL EXTRANJERO**

El Consejo de Gobierno, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, ha aprobado en su reunión de hoy una Orden por la que se convocan ayudas para la realización de cursos de lenguas inglesa, francesa o alemana en el extranjero en verano de 2011, destinadas a estudiantes universitarios y universitarias y de otros estudios superiores.

Mediante esta Orden se convocan 286 ayudas, por un importe global de 514.800 euros, para la estancia y realización de un curso de lengua inglesa, francesa o alemana en el extranjero dirigidas a estudiantes universitarios y universitarias y de otros estudios superiores que tengan la condición de becarios o becarias.

El curso de idioma deberá tener al menos tres semanas de duración ininterrumpida y quince horas lectivas semanales, se deberá realizar en un país cuyo idioma oficial se corresponda con el idioma que se desea cursar y realizarlo en el verano de 2011, con inicio entre el 1 de junio y el 15 de septiembre de 2011.

## Economía y Hacienda

### EL GOBIERNO APRUEBA EL PROYECTO DE LEY DE LA AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA

- El Consejo de Gobierno ha aprobado el proyecto de Ley de la Autoridad Vasca de la Competencia (AVC) por el que se crea un organismo autónomo de carácter administrativo que unifica las labores de instrucción y de resolución que hasta ahora correspondían al Servicio Vasco de la Competencia y al Tribunal Vasco de la Competencia respectivamente.
- En su presentación, el Consejero de Economía, Carlos Aguirre, ha señalado que “el rango de Ley incrementa el nivel competencial y la seguridad jurídica del organismo encargado de la defensa de la competencia, así como su independencia con respecto a las Administraciones Públicas y agentes económicos”.
- La Ley de la AVC refuerza la estructura de defensa de la competencia con la creación de cuatro órganos: Presidencia, Consejo Vasco de la Competencia, Dirección de Investigación y Secretaría General.
- El nuevo modelo es más acorde y coherente con los existentes en el ámbito de la Unión Europea, mejora la eficiencia y la coordinación entre las funciones de instrucción y resolución.
- Las funciones que desarrollará la AVC serán la defensa de las condiciones de libre competencia, la represión de conductas anticompetitivas, la promoción de la competencia y la posibilidad de impugnar actos y disposiciones inferiores al rango de Ley de la Administración General, Foral y Local del País Vasco que vulneren aspectos de la libre competencia.
- Con la actividad de la AVC se impulsará un funcionamiento más eficiente de los mercados y se asegurará que empresas y consumidores se beneficien de precios más reducidos, mayores posibilidades de elección y una mejor atención a los clientes.
- La transparencia en la actuación de la AVC queda expresamente recogida en el articulado del capítulo III de la ley

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy, el proyecto de Ley de la Autoridad Vasca de la Competencia(AVC), un organismo autónomo de carácter administrativo y personalidad jurídica propia. La Ley garantiza la independencia del nuevo organismo frente las Administraciones Públicas y a los agentes económicos al tener autonomía orgánica y funcional.

La CAPV tiene actualmente encomendada la defensa de la competencia al Tribunal Vasco de la Competencia, con funciones decisorias y consultivas, y al Servicio Vasco de la Competencia, con funciones instructoras. El proyecto de Ley une en un sólo organismo las funciones instructoras y decisorias, aunque mantiene la separación entre las fases de instrucción y resolución del procedimiento sancionador. Un sistema más acorde a los principios de economía y eficiencia en la actuación de los órganos de la administración.

El Consejero de Economía y Hacienda, Carlos Aguirre, ha declarado que la Ley "refuerza el nivel competencial y la seguridad jurídica del organismo encargado de la defensa de la competencia". Hasta ahora el funcionamiento del Tribunal Vasco de la Competencia se ha regulado mediante decretos y ahora será el Parlamento Vasco el que determinará el ámbito normativo del organismo.

Según Carlos Aguirre, "la defensa de la competencia es un principio fundamental del desarrollo económico, mejora la calidad de los precios, bienes y servicios y es un estímulo clave para el progreso social. Asimismo, un entorno de libre competencia redundará en el bienestar de los consumidores y usuarios y protege a las empresas, las principales afectadas por las prácticas anticompetitivas".

La nueva estructura de la AVC se ha ideado con la intención de hacerla funcionalmente más potente con respecto al modelo dual integrado por el Servicio y el Tribunal de la Competencia. Con la ley se establece una nueva estructura de cuatro órganos: la Presidencia que tendrá rango de viceconsejería, el Consejo Vasco de la Competencia la Dirección de Investigación, y la Secretaría General. Un nuevo modelo más acorde y coherente con el diseño existente en los ámbitos de muchos de los países de la Unión Europea.

La Presidencia será un órgano unipersonal que ostentará las funciones de dirección y representación de la Autoridad Vasca de la Competencia. El Consejo Vasco de la Competencia será un órgano colegiado de promoción, resolución y dictamen, integrado por la Presidencia, dos vocales y la Secretaría General, con funciones de apoyo material, administrativo, técnico y de asesoramiento jurídico. Por último la Dirección de Investigación tendrá funciones de instrucción.

Los vocales del Consejo no deberán tener una dedicación absoluta al cargo para así facilitar la contratación de profesionales de reconocido prestigio y cualificación que de otro modo no sería posible. En definitiva, con este cambio la estructura la Autoridad Vasca de la Competencia sale reforzada frente al modelo actualmente vigente. Con las novedades se incrementa la capacidad de la Autoridad, se mejora la eficiencia al trabajar de modo coordinado y se asegura la independencia entre instrucción y resolución.

La Presidencia, los vocales del Consejo, y la Dirección de Investigación serán nombrados por el Gobierno por un período de 6 años lo que asegura que no haya identidad entre periodo de vigencia de su cargo con la legislatura.

Las funciones que desarrollará la Autoridad Vasca de la Competencia serán la defensa, garantía y mejora de las condiciones de la libre competencia y la transparencia en el mercado. También sancionará las conductas contrarias a la competencia, las situaciones de abuso de posición dominante o las que se consideren actos de competencia desleal. La AVC tendrá potestad para impugnar actos sujetos al derecho administrativo y las disposiciones inferiores al rango de Ley de la Administración General, Foral y Local del País Vasco, cuando de las mismas se deriven obstáculos para el mantenimiento de la competencia de los mercados.

La investigación general y específica de sectores y mercados y de su funcionamiento competitivo y, la promoción en materia de competencia son otros apartados que estarán bajo la tutela de la AVC.

Para el logro de estos objetivos la Autoridad tendrá facultades de inspección. Los miembros de la autoridad tendrán condición de agentes de la autoridad y podrán realizar inspecciones incluso en domicilios del personal de las empresas con autorización judicial. Toda persona, física o jurídica tendrá el deber de colaboración con la autoridad.

En el capítulo III de la ley se hace mención especial a la transparencia en las actividades de la AVC. Todas las resoluciones y la memoria de actividades se publicarán en la web institucional y habrá comparecencias periódicas ante el Parlamento para la presentación de las líneas básicas de su actuación.

La Ley contempla que, en un plazo inferior a seis meses desde su aprobación, comenzara la actividad de la AVC con la entrada en vigor del Estatuto que regulará el reglamento de funcionamiento. En ese momento quedaran extinguidos el Tribunal y el Servicio Vasco de la Competencia cuyos expedientes, derechos y obligaciones serán asumidos por la AVC.



## Industria, Innovación, Comercio y Turismo

### **EL GOBIERNO VASCO DESTINA 12 MILLONES A AYUDAS PARA LOS CENTROS DE INVESTIGACIÓN COOPERATIVA (CICS)**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de ayudas, para el ejercicio 2011, del programa de apoyo a los Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación acreditados en la categoría de Centros de Investigación Cooperativa (CICs). En Euskadi existen actualmente siete CIC's denominados bioGUNE, biomaGUNE, microGUNE, marGUNE, nanoGUNE, tourGUNE y energiGUNE.

El presupuesto de estas ayudas es de 12 millones de euros para el año 2011 y de 13 millones para el ejercicio siguiente. Por lo tanto, el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo va a destinar 25 millones a los CICs, que subvencionarán la realización de labores de investigación de excelencia y de formación de alto nivel en áreas estratégicas definidas por la política pública de I+D+i.

Este programa de ayudas subvenciona hasta un límite máximo del 100% del coste total de la actividad no económica que realizan los CICs. Están excluidas del objeto de subvención la actividad económica como la investigación llevada a cabo bajo contrato con la industria, el alquiler de infraestructuras de investigación y cualquier otra de naturaleza económica que no responda a las condiciones exigidas en la normativa europea.

Los Centros de Investigación Cooperativa nacen como instrumentos de las apuestas estratégicas de la política de ciencia y tecnología. Además son proyectos con capacidad de atraer personas investigadoras de la Comunidad Científica Internacional. Son verdaderos polos de conocimiento con proyección internacional y con vocación de orientar su investigación hacia áreas de conocimiento emergentes como las biociencias, las nanociencias o la energía.

Esta inversión busca contribuir a la transformación económica de Euskadi, para convertirse en un referente europeo de investigación y tecnología. Asimismo, esta estrategia aparece entre las acciones marcadas por el Plan de Competitividad Empresarial 2010-2013 y el próximo Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación.

El plazo para presentar la solicitud acaba el 31 de mayo de 2011.

## Industria, Innovación, Comercio y Turismo

### **CONVENIO DE 1.000.000 DE EUROS ENTRE EL GOBIERNO VASCO, LA DIPUTACIÓN DE VIZCAYA Y LA UPV PARA EL FUNCIONAMIENTO DEL AULA AERONÁUTICA**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el convenio de colaboración científica, tecnológica y formativa, presentado por el departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, para el funcionamiento del Aula Aeronáutica. Este responde a la necesidad constatada, por los sectores empresariales del campo de las tecnologías aeronáuticas, de formación específica en esta materia y en concreto en el ámbito de la ingeniería.

El convenio que suscriben el Gobierno Vasco, a través de sus departamentos de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, y de Educación, junto con la Diputación Foral de Vizcaya, tiene su vigencia desde el año 2011 hasta el año 2014 inclusive. Las tres instituciones vascas aportarán 250.000 euros cada uno de los departamentos del Gobierno Vasco y 500.000 euros la Diputación, lo que supone un total de 1.000.000 de euros durante los cuatro años. Tienen como prioridad la ejecución de un curso de especialización en tecnologías aeronáuticas, lo que supondrá el desarrollo del propio aula.

El aula comenzó a funcionar el año 2000 por un acuerdo entre la Universidad del País Vasco (Escuela Técnica Superior de Ingeniería de Bilbao), la Diputación Foral de Vizcaya y la BBK. Durante estos años, ha formado a 216 ingenieros con una sólida intensificación en tecnologías aeronáuticas, en las ramas de estructuras y propulsión. Las empresas de Euskadi del sector aeroespacial y el propio Cluster de Aeronáutica y Espacio del País Vasco (HEGAN) han manifestado su satisfacción por la formación recibida por los alumnos a lo largo de estos años.

En este sentido, el Gobierno Vasco considera prioritario ejercer su papel protagonista en un proyecto que tiene como ejes la innovación y la tecnología, y en el que la internacionalización en el conocimiento está garantizada, ya que participan en su docencia profesores de países como Francia, Inglaterra, EEUU. Esta aula imparte una formación específica que únicamente se puede recibir en contados centros de la Unión Europea.

Las cantidades aportadas por las instituciones irán destinadas a la puesta en marcha de un curso de especialización anual en Tecnología Aeronáutica, "Experto en Intensificación en Tecnologías Aeronáuticas", desarrollado a lo largo de cuatro ediciones, con el objetivo de formar entre 50 y 100 especialistas, al desarrollo de Seminarios y jornadas de formación tanto específicos como dentro de un plan general de formación continuada y a la puesta en marcha de programas y proyectos de investigación científica o de desarrollo tecnológico, cuyo contenido se especificará en cada caso.

## Empleo y Asuntos Sociales

### **EL GOBIERNO APRUEBA EL DECRETO QUE REGULA EL FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO VASCO DE ATENCIÓN SOCIOSANITARIA**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el decreto que regula las funciones, la composición y el funcionamiento del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.

Este órgano tripartito integrado por el Gobierno vasco (Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, y Departamento de Sanidad y Consumo), la Asociación de Municipios Vascos-Eudel y Diputaciones forales, es el encargado de articular la cooperación y la coordinación entre el sistema de servicios sociales y el sanitario. La atención sociosanitaria comprende el conjunto de cuidados destinados a las personas que por causa de graves problemas de salud o que sufren riesgo de exclusión social precisan de una atención social y sanitaria simultánea, coordinada y estable. El principal objetivo es que el cuidado de esas personas se haga en su propio hogar, sin que haya que sacarlas de su entorno.

El Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria estará compuesto por 12 miembros, seis en representación del Sistema Vasco de Servicios Sociales (el titular del Departamento competente en servicios sociales; tres de las diputaciones, 1 de los ayuntamientos y 1 del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales); y otros seis, del Sistema Sanitario de Euskadi (el titular del Departamento de Sanidad y otros cinco representantes del mismo departamento). Quedará adscrito al Departamento del Gobierno vasco competente en materia de Sanidad, y aunque su sede estará en las dependencias del mismo Departamento, no se insertará en su estructura jerárquica.

La Presidencia del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria se ejercerá, con periodicidad anual y de forma rotatoria, entre el consejero o consejera competente en materia de Servicios Sociales y el consejero o consejera competente en Sanidad. El primer año corresponderá la presidencia a la consejera de Empleo y Asuntos Sociales, Gemma Zabaleta.

Con carácter específico, las funciones del Consejo son:

- a) Participar en la propuesta de definición de las políticas básicas de la atención sociosanitaria.
- b) Orientar el consenso para establecer las directrices y los criterios generales de funcionamiento de la atención sociosanitaria.
- c) Conocer y debatir las cuestiones relacionadas con la atención sociosanitaria que requieran una regulación jurídica específica, cuando sea consultado al respecto.

- d) Informar, con carácter previo a su aprobación por el Consejo de Gobierno, el Plan Estratégico cuatrienal de Atención Sociosanitaria y proceder, tras finalizar su vigencia, a la evaluación del nivel de realización e implantación de las medidas incorporadas al mismo.
- e) En su caso, participar en la propuesta de definición del catálogo y/o de la cartera conjunta de servicios y prestaciones u otras fórmulas o instrumentos orientados a garantizar la adecuación de los recursos y la idoneidad de la atención.
- f) Orientar el diseño y la aprobación de instrumentos y protocolos conjuntos de colaboración y coordinación que resulten aplicables al ámbito autonómico.
- g) Promover la puesta en marcha de iniciativas de organización o de servicios de carácter experimental, en forma de proyectos piloto, orientados a probar nuevas fórmulas susceptibles de favorecer una mejor coordinación entre los dos ámbitos de actuación.
- h) Prever los recursos financieros públicos necesarios para la implantación del modelo de atención sociosanitaria.
- i) Establecer mecanismos de información a las entidades y asociaciones de profesionales y usuarios que trabajan en el ámbito sociosanitario.

## Cultura

### **APROBADO EL PROGRAMA DESTINADO A APOYAR EL TEATRO DE CALLE**

El Consejo de Gobierno ha aprobado la Orden de la consejera de Cultura por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones durante el ejercicio 2011 destinadas a 'Kale antzerkia bultzatuz', programa destinado a apoyar el teatro de calle organizado por las entidades locales.

La actual crisis económica está afectando de modo muy importante a la programación cultural en el área de las artes escénicas, lo que incide negativamente en la sostenibilidad del tejido empresarial teatral vasco, siendo una de las áreas más desatendidas dentro de este campo el sector del teatro de calle. El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, sensible a esta situación y consciente del importante esfuerzo económico que los ayuntamientos realizan, considera necesario colaborar y apoyar las programaciones de artes escénicas al aire libre mediante el programa 'Kale antzerkia bultzatuz' y la Orden hoy aprobada, que regula las condiciones de concesión de subvenciones destinadas a financiar parte del gasto que ocasiona el desarrollo de programas de exhibición de espectáculos de teatro de compañías vascas en espacios públicos al aire libre que se realicen durante el año 2011.

Podrán solicitar estas ayudas los Ayuntamientos, Cuadrillas y Mancomunidades o sus Organismos Autónomos Municipales que dispongan de espacios de representación apropiados, señalizados y acotados que cumplan todas las medidas de seguridad exigidas por la legislación vigente, así como un seguro de responsabilidad civil para los espectáculos que se programen y locales adecuados para utilizarlos como camerinos y vestuarios; que tengan una persona responsable que coordine todos los aspectos técnicos del programa; y que dispongan de una partida presupuestaria correspondiente para poder asumir los gastos de contratación de las compañías o artistas participantes, así como los gastos de producción derivados de los espectáculos.

El importe global destinado a estas subvenciones es de 90.000 euros, que se distribuirá entre las poblaciones de más de 20.000 habitantes (25.000 euros), las que tengan entre 20.000 y 10.001 habitantes (25.000 euros), las de entre 10.000 y 5.000 habitantes (20.000 euros) y las poblaciones menores de 5.000 (20.000 euros). El pasado año, primera vez en que se ponía en marcha este programa, se atendieron 23 proyectos presentados por los ayuntamientos por un importe de algo más de 73.000 euros.

## Lehendakaritza

### **EUSKAL LANKIDE BOLUNTARIOENTZAKO LAGUNTZAK EMATEKO ETA LIBIAN LARRIALDIRAKO LAGUNTZA EMATEKO DEIALDIAK EGIN DIRA**

Jaurlaritzak oniritzia eman dio euskal lankide boluntarioentzako laguntzak emateko deialdia jasotzen duen dekretuari. Guztira 400.000 euroko dirulaguntzak onartu dira eta bi urtetan zehar banatuko dira: 250.000 euro aurten eta gelditzen dena, 150.000 euro, 2012rako.

Dirulaguntza horiek Garapena eta Lankidetzaren sustatzeko Fondoaren kontura ematen dira eta euskal lankide boluntarioen egoera tokian hobetzeko dira. Eskaerak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian aurkezteko epea ireki da. Euskadiko GGKEk hilabeteko epea dute lankide boluntarioentzako laguntza eskaerak aurkezteko.

Era berean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak martxoaren 30ean egin zuen Artekari Batzordean onartu zuen larrialdietarako ekintza humanitarioetarako etenik gabeko laguntzen artean 125.000€uroko dirulaguntza ematea ACNUR-i.

Dirulaguntza hori Libiako larrialdi proiektu batetarako da, Tunisiarekin muga egiten duen Ras Adjira joan diren talde ahulei laguntza emateko. Proiektua garbitasunerako artikuluek, mantez eta elikagaiez hornitzeko da.

## Herrizaingo Saila

### **TRAFIKOK DIRU-LAGUNTZAK EMANGO DIZKIE UDALAI HIGIKORTASUN SEGURUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN EKINTZA HEZITZAILEAK ABIATZEKO**

- **250.000 euro emango ditu ekintza hezitzaileak, ikasmateriala eta adituen prestakuntza ordaintzeko**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 250.000 euro erabiltzea Udalei eta EAEko bestelako erakunde lokalei bideratutako diru-laguntzetarako; hauei esker, higikortasun seguruarekin zerikusia duten heziketa-ekintzak landu ditzaten. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak bide-hezkuntzaren alorrean beste Administrazio lokalekin dituen elkarlan politiken baitan biltzen dira aipatutako diru-laguntzak.

Gaur onartu den Herrizaingo sailburuaren Aginduari esker, Udalek diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte higikortasun seguruarekin zerikusia duten heziketa proiektuak aurrera eramateko. Trafikoarekiko hiritarren segurtasun maila handitzea lortu nahi da ekimen honen bidez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak ezinbestekotzat jotzen du hiritarrentzako ekintza hezitzaileak abiatzea, pertsoneri bideratuak bereziki, gizakia bera baita trafiko istripu gehienen erantzule nagusia.

Diru-laguntza hauetarako bideratu den aurrekontu saila 250.000 eurokoa da eta batez ere, oinezkoei, txirrindulariei, gidariei, garraio publikoaren erabiltzaileei, e.a. zuzenduta dauden heziketa proiektuak egiteko erabili beharko da. Era berean, higikortasun segurua bultzatzeko ikasmaterialak eta hauek erakustez arduratuko diren pertsonen heziketa ordaintzeko ere erabiliko dira laguntza hauek.

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### LANBIDE HEZIKETARAKO SARBIDE-PROBAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, 2011-2012 ikasturtean Lanbide heziketarako sarbide-probak prestatzeko ikastaroak irakasteko laguntzerako dei egiten duen agindua.

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastexe pribatuentzako dirulaguntza, 235.384 euroko zenbatekoa, deialdia egitea Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako zikloetarako sarbide probak prestatzeko ikastaroak antolatu eta irakatsi ditzaten 2011-12 ikasturtean. Ikastaroak 18 urtetik gorako herritarrei zuzendurik egongo dira, hain zuzen ere, lanbide heziketako zikloak Ikasi nahi baina horretarako titulaziorik ez dutenentzat.

### 160.000 EURO IKERTZAILEAK KONTRATATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran hartu du dirulaguntza zuzen hauek ematea baimentzeko erabakia:

130.000 euro Ikerbasque fundazioari, I. mailako bost ikertzaile, unibertsitate-irakasle titularra edo baliokideren bat mugarik gabe kontratatzeko, I3. programari buruzko protokolo orokorra garatzeko Hezkuntza eta Berriztapen Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan.

30.000 euro Euskal Herriko Unibertsitateari, I. mailako ikertzaile bat, unibertsitate-irakasle titular bat edo baliokideren bat mugarik gabe kontratatzeko, I3. programari buruzko protokolo orokorra garatzeko Hezkuntza eta Berriztapen Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan.



## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### **514.800 EURO HIZKUNTZETAKO IKASTAROAK ATZERRIAN EGITEKO DIRULAGUNTZETARAKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, 2011ko udan atzerrian Ingeleseko, Frantseseko edo Alemaneko ikastaroak egiteko, unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiten dituzten ikasleentzako dirulaguntzak deitzen dituen agindu bat.

Agindu honen bidez 286 dirulaguntza deitzen dira, 514.800 euroko zenbateko globalean, atzerrian Ingeleseko, Frantseseko edo Alemaneko ikastaro bat egiteko, unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiten dituzten ikasleentzat, bekadunak badira.

Hizkuntzako ikastaroak, gutxienez, hiru aste iraun beharko du, etenik gabekoak, atean hamabost klase-ordu izan beharko ditu, hizkuntza ofizialtzat ikasi nahi den hizkuntza duen herrialde batean egin behar da eta 2011ko udan egingo da. 2011ko ekainaren 1etik irailaren 15era bitartean iraungo du.

## **Ekonomia eta Ogasun Saila**

### **GOBERNU-KONTSEILUAK LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN LEGE-PROIEKTUA ONETSI DU**

- **Gobernu Kontseiluak Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko lege-proiektua onetsi du. Horren bitartez, orain arte hurrenez hurren Lehiaren Euskal Zerbitzuari eta Lehiaren Euskal Auzitegiari zegozkien instrukzio- eta ebazpen-lanak bateratzen dituen administrazio izaerako erakunde autonomoa sortu da.**
- **Aurkezpenean, Carlos Aguirre Ekonomiako sailburuak adierazi du “legeak lehia defendatzeko ardura duen erakundearen lehia-maila eta segurtasun juridikoa handitzen dituela, bai eta administrazio publikoekiko eta eragile ekonomikoekiko independentzia ere”.**
- **Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko legeak lehia defendatzeko egitura indartzen du, lau organo sortuz: Lehendakaria, Lehiaren Euskal Kontseilua, Ikerketa Zuzendaritza eta Idazkaritza Nagusia.**
- **Eredu berriak adostasun eta koherentzia handiagoa du Europar Batasunaren eremuan daudenekin, eta instrukzio- eta ebazpen-eginkizunen arteko efizientzia eta koordinazioa hobetzen du.**
- **Honako eginkizun hauek garatuko ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak: lehia askearen baldintzak defendatzea, lehiaren aurkako jokabideak zehatzea, lehia sustatzea eta lehia askearen alderdiak betetzen ez dituzten EAEko Administrazio Orokorren, Foru Administrazioaren eta Toki Administrazioaren egintzak eta legea baino beheragoko xedapen orokorrak aurkatzeko aukera.**
- **Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduerarekin, merkatuen funtzionamendu eraginkorragoa bultzatuko da, eta enpresa eta kontsumitzaileek prezio merkeagoak, hautatzeko aukera gehiago eta bezeroekiko arreta hobea izatea bermatuko da.**
- **Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardueraren gardentasuna berenberegiz azaldu da Legearen III. kapituluko artikuluetan.**

Gobernu Kontseiluak Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko lege-proiektua onetsi du gaur, eta berezko nortasun juridikoa duen administrazioko erakunde autonomoa izango da hori. Legeak bermatu egiten du erakunde berria independentea izango dela administrazio publikoekiko eta eragile ekonomikoekiko, erakunde- eta funtzio-autonomia izango dituelako.

Gaur egun EAEk Lehiaren Euskal Auzitegiaren eta Lehiaren Euskal Zerbitzuaren esku ditu erabaki- eta kontsulta-eginkizunak, eta instrukzio-eginkizunak, hurrenez hurren. Lege-proiektu honekin erakunde bakar batean bateratu dira instrukzio- eta erabaki-eginkizunak, nahiz eta zehapen-

prozeduraren ebazpen- eta instrukzio-faseak bereizten jarraitzen duen. Sistema hau hobeto dator bat administrazioko erakundeen jardueran nagusitu behar diren ekonomia eta efizientzia printzipioekin.

Carlos Aguirre Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak adierazi du legeak “lehia defendatzeko ardura duen erakundearen lehia-maila eta segurtasun juridikoa indartzen dituela”. Orain arte dekretuen bitartez arautu izan da Lehiaren Euskal Auzitegiaren funtzionamendua, eta orain Eusko Legebiltzarrak zehaztuko du erakundearen arau-eremua.

Carlos Aguirrereren iritziz, “lehiaren defentsa garapen ekonomikoaren oinarrizko printzipioa da, ondare eta zerbitzuen prezio eta kalitatea hobetzen ditu, eta funtsezko suspergarria da gizarteak aurrera egiteko. Halaber, lehia askearen inguruneak kontsumitzaile eta erabiltzaileen ongizatea eragiten du, eta enpresak babesten ditu, horiexei egiten baitiete kalte handiena lehiaren aurkako jardunbideek”.

Orain arte Lehiaren Zerbitzuak eta Auzitegiak osatutako binakako ereduarekin alderatuz funtzionalki indar handiagoa izateko asmoz pentsatu da Lehiaren Euskal Agintaritzaren egitura berria. Lege honekin lau organoko egitura berria ezarri da: Lehendakaria —Sailburuordetzaren maila izango duena—, Lehiaren Euskal Kontseilua, Ikerketa Zuzendaritza eta Idazkaritza Nagusia. Eredu berriak adostasun eta koherentzia handiagoa izango du Europar Batasuneko hainbat herrialdetako eremuetako diseinuarekin.

Lehendakaria kide bakarreko organoa izango da, eta Lehiaren Euskal Agintaritza zuzendu eta ordezkatzea izango da bere lana. Lehiaren Euskal Kontseilua sustapen, ebazpen eta irizpenerako kide anitzeko organoa izango da; lehendakariak, bi kontseilukidek eta idazkari nagusiak osatuko dute, eta laguntza material, administratibo eta teknikoa emateko organoa izango da, baita aholkularitza juridikokoa ere. Azkenik, Ikerketa Zuzendaritzak instrukzioa egiteko eginkizunak izango ditu.

Kontseilukideek ez dute arduraldi eksklusiborik izan behar eta, horrela, errazagoa izango da izen eta prestakuntza handiko profesionalak kontratatzea, bestela ezin izango bailitzateke. Azken batean, aldaketa hau eginda Lehiaren Euskal Agintaritzaren egitura indartsuagoa da gaur egun indarrean dagoen ereduarekin alderatuz. Beraz, berrikuntzei esker, Agintaritzaren gaitasuna handituko da, efizientzia hobetuko da (koordinatuta lan egiten delako) eta instrukzioaren eta ebazpenaren arteko independentzia bermatuko da.

Jaurlaritzak izendatuko ditu lehendakaria, kontseilukideak eta Ikerketa Zuzendaritzako kideak. 6 urteko agintaldia izango dute eta, beraz, karguaren indarraldia eta legegintzaldia ez dira bat etorriko.

Eginkizun hauek garatuko ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak: lehia askearen baldintzak defendatu, bermatu eta hobetzea, eta merkatuan gardentasuna ezartzea. Halaber, lehiaren aurkako jokabideak, nagusitasunezko egoeraren abusu-egoerak eta lehia desleialeko egintzat jotzen direnak ere zehatuko ditu. Lehiaren Euskal Agintaritzak ahalmena izango du administrazio-zuzenbideari loturik dauden EAEko Administrazio Orokorraren, Foru

Administrazioaren eta Toki Administrazioaren egintzak eta legea baino beheragoko xedapenak aurkatzeko, horien bidez merkatuetako lehia mantentzeko oztopoak eragiten badira.

Sektore eta merkatuen ikerketa orokor eta berariazkoa eta lehiaren arloan duten funtzionamendua ere Lehiaren Euskal Agintaritzak landu beharreko atalak izango dira.

Helburu horiek lortzeko, ikerketa-ahalmena izango du Agintaritzak. Agintaritzako kideak agintaritzaren agenteak izango dira, eta enpresetako langileen etxeetan ere egin ahal izango dituzte ikuskapenak, baimen judiziala badute. Pertsona fisiko eta juridiko guztiek izango dute agintaritzarekin lankidetzan aritzeko beharra.

Legearen III. kapituluaren bereziki aipatzen da Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardueren gardentasuna. Ebazpen guztiak eta jarduera-memoria erakundearen web gunean argitaratuko dira, eta aldian-aldian Eusko Legebiltzarrean agertu beharko da, bere jardueraren oinarritzko ildoak aurkezteko.

Legeak dioenez, Legea onetsi eta gehienez sei hilabeteko epean hasiko da Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera, funtzionamendu-erregelamendua arautuko duen estatutua indarrean sartzean. Momentu horretan iraungita geratuko dira Lehiaren Euskal Auzitegia eta Zerbitzua, eta Lehiaren Euskal Agintaritzak hartuko ditu horien espediente, eskubide eta betebeharrak.

## Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

### EUSKO JAURLARITZAK 12 MILIOI JARRI DITU IKERKETA KOOPERATIBOKO ZENTROEI LAGUNTZEKO

Eusko Jaurlaritzak gaur onartu du Ikerketa Kooperatiboko Zentroen kategorian egiaztatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteei laguntzeko programaren 2011ko ekitaldirako laguntzen deialdia. Euskadin Ikerketa Kooperatiboko zazpi Zentro daude une honetan: bioGUNE, biomaGUNE, microGUNE, marGUNE, nanoGUNE, tourGUNE eta energiGUNE.

Laguntza horiek 12 milioi euroko aurrekontua dute 2011. urterako eta 13 milioi euroko aurrekontua hurrengo ekitaldirako, hurrenez hurren. Hortaz, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak 25 milioi jarriko ditu Ikerketa Kooperatiboko Zentroei laguntzeko, I+G+Bko politika publikoak zehaztutako arlo estrategikoetan bikaintasun-ikerketako eta goi-mailako prestakuntzako lanak egitea diruz lagunduko dutenak.

Ikerketa Kooperatiboko Zentroek gauzatutako jarduera ez-ekonomikoaren guztizko kostuaren % 100eraino laguntzen du diruz programa horrek. Diru-laguntzaren xedetik kanpo geratzen dira jarduera ekonomikoa, industriarekiko kontratuean egindako ikerketa adibidez; ikerketa-azpiegituren alokairua; eta Europako araudiak eskatutako baldintzekin bat ez datozen gainerako jarduera ekonomikoak.

Zientzia eta teknologia-politikaren apustu estrategikoen tresna gisa sortu dira Ikerketa Kooperatiboko Zentroak. Gainera, nazioarteko zientzia-komunitateko ikertzaileak erakartzeko gaitasuna duten proiektuak dira. Benetako jakintzaguneak dira, nazioarteko proiektzioa dutenak eta ikerketan goraka ari diren jakintza-arloetara —biozientziak, nanozientziak edo energia— bideratu nahi dutenak.

Euskadiko ekonomia eraldatzen lagundu nahi du inbertsioak, Euskadi Europan ikerketaren eta teknologiaren erreferentzia bihurtzeko. Gainera, 2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Planak eta hurrengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak ezarritako ekintzen barruan kokatzen da estrategia hori.

2011ko maiatzaren 31n amaituko da eskabideak aurkezteko epea.

## Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

### **EUSKO JAURLARITZAK, BIZKAIKO ALDUNDIAK ETA EHUK 1.000.000 EUROKO HITZARMENA SINATU DUTE AERONAUTIKA GELAREN FUNTZIONAMENDUA SUSTATZEKO**

Jaurlaritzaren Kontseiluak zientziaren, teknologiaren eta prestakuntzaren arloetan elkarlanean aritzeko hitzarmena onartu du gaur, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak aurkeztu duena Aeronautika Gelaren funtzionamendua sustatzeko. Aeronautika-teknologiaren alorreko enpresa sektoreek arlo horretan —eta zehazkiago ingeniaritzaren esparruan— egiaztatutako berriazko prestakuntzaren premiari erantzuteko sortu da hitzarmen hori.

Eusko Jaurlaritzak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta Hezkuntza Sailaren bitartez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatu duten hitzarmena 2011. urtetik 2014. urtea amaitu arte egongo da indarrean. Lau urte horietan, Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak 250.000 euro jarriko ditu, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, 500.000 euro; hortaz, 1.000.000 euro guztira. Aeronautika-teknologiei buruzko espezializazio-ikastaro bat ematea izango da hitzarmenaren lehentasuna, eta horrek gelaren garapena ekarriko du berekin.

Aeronautika-gela 2000. urtean hasi zen indarrean, Euskal Herriko Unibertsitateak (Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa), Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBK-k adostutako hitzarmenari esker. Urte hauetan guztietan 216 ingeniari prestatu dituzte, egituren eta propulsioren adarretan, aeronautika-teknologiaren inguruko prestakuntza sendotuz eta areagotuz. Euskadiko sektore aeroespazialaren enpresak eta HEGAN Euskadiko Aeronautika eta Espazio Klusterra pozik azaldu dira ikasleek urte hauetan jasotako prestakuntzarengatik.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak protagonista izan nahi du ardatz gisa berrikuntza eta teknologia dituen proiektu horretan, non nazioartekotzea eta jakintza bermatuta dauden, atzerriko zenbait herrialdeetako (Frantzia, Ingalaterra, AEB eta abar) zenbait irakasleek irakaskuntzan parte hartzen duten neurrian. Berriazko prestakuntza eskaintzen du Aeronautika Gelak, Europar Batasuneko zentro gutxi batzuetan bakarrik jaso daitekeena.

Erakundeek jarritako diru-kopuruek honako xede hauek izango dituzte: Aeronautika Teknologiarik buruzko urteko espezializazio-ikastaro bat abian jartzea, “Aeronautika Teknologia areagotzean aditua” izenekoa eta lau ediziotan barrena garatuko dena, 50-100 espezialista prestatzeko asmoarekin; mintegiak eta prestakuntza-jardunaldiak garatzea, berriazkoak zein etengabeko prestakuntzako plan orokorraren barnean hartutakoak; eta zientzia-ikerketako edo teknologia-garapenerako programa edo proiektuak abian jartzea, bakoitzaren edukia kasuan kasu zehaztuko delarik.

## Lan eta Gizarte Gaietako Saila

### **ARRETA SOZIOSANITARIOAREN EUSKAL KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTUKO DUEN DEKRETUA ONARTU DU JAURLARITZAK**

Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluaren egitekoak, osaera eta oinarrizko funtzionamendua arautuko dituen dekretua onartu du gaur Jaurlaritzaren Kontseiluak.

Organo hori hiru alderdikoa izango da; izan ere, Eusko Jaurlaritzak (Osasun eta Kontsumo Saila eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila) Eudel Euskal Udalen Elkarteak eta hiru foru aldundiek osatuko baitute. Osasun-arazo larriak edo gizarte-bazterkeriako arrisku-mugak direla-eta arreta sanitario eta sozial aldibereko, koordinatu eta egonkorra behar duten pertsonentzako zainketen multzoa biltzen du arreta soziosanitarioak. Helburu nagusia pertsona horien beren etxeetan zaintzea da, haien inguruetik atera gabe.

Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseilua 12 kidek osaten dute: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sei ordezkari (gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak dituen Saileko titularra; aldundietako hiru, udaletako 1 eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko 1) eta Euskadiko Osasun Sistemaren beste sei (Osasun Saileko titularra eta sail bereko beste bost ordezkari). Osasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailari atxikiko zaio, horren hierarkia-egituran sartu gabe, nahiz eta sail horren bulegoetan izango duen bere egoitza.

Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluaren lehendakaritza Gizarte Zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak eta Osasunaren arloan eskumena duen sailburuak gauzatuko dute, urtebeteko aldietan eta txandaka. Lehenengo urtean Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua izango da presidentea.

Kontseiluaren berariazko eginkizunak ondokoak dira:

- a) Arreta soziosanitarioaren oinarrizko politikak definitzeko proposamenean parte hartzea.
- b) Arreta soziosanitarioaren funtzionamendurako arau eta irizpide orokorrak ezartzeko adostasuna orientatzea.
- c) Arautze juridiko espezifikoa behar duten arreta soziosanitarioarekin lotutako gaiak jakitea eta eztabaidatzea, horri buruz galdetzen diotenerako.
- d) Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu aurretik, Arreta Soziosanitarioko laurteko Plan Estrategikoa ezagutzera ematea, eta, horren indarraldia

amaitu ondoren, bertan txertatutako neurrien egikaritze- eta ezarpen-maila ebaluatzea.

- e) Hala badagokio, ondokoetan parte-hartzea: zerbitzuen eta prestazioen katalogoa eta/edo kartera bateratua definitzeko proposamenean edo baliabideak egokitzen direla eta arreta egokia dela bermatzera bideratutako beste formula edo tresna batzuk definitzeko proposamenean.
- f) Autonomia Erkidegoan aplika daitezkeen lankidetzako eta koordinazioko tresnen eta protokolo bateratuen diseinua eta onarpena orientatzea.
- g) Antolamendu-ekimenak edo zerbitzu esperimentalak martxan jar daitezzen sustatzea, proiektu pilotu gisa, bi jardun-eremuen artean koordinazio hobea lor dezaketen formula berriak probatzera zuzenduak.
- h) Arreta soziosanitarioaren ereduaren ezarpeneko behar diren finantza-baliabide publikoak aurreikustea.
- i) Esparru soziosanitarioan lan egiten duten erakundeei eta profesionalen eta erabiltzaileen elkarteei informazioa emateko mekanismoak ezartzea.



## Kultura Saila

### KALE-ANTZERKIA BULTZATZEKO PROGRAMA ONARTU DA

Gobernu Kontseiluak toki-entitateek antolaturiko kale-antzerkia bultzatzea helburua duen "Kale antzerkia bultzatuz" programari zuzendutako 2011ko dirulaguntzen deialdia arautzen duen Kulturako sailburuaren agindua onartu du.

Oraingo krisi ekonomikoa gogor jotzen ari da arte eszenikoen alorreko kultur programazioa, eta horrek kalte egiten dio euskal antzerkigintzaren enpresa-egituraren jasangarritasunari. Alderdi horretatik arreta txikiena jasotzen duen sektorea da kale-antzerkiarena. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, egoera honen aurrean kezkatuta eta jakitun udalek ahalegin ekonomiko handia egiten dutela, uste du beharrezkoa dela aire zabaleko arte eszenikoen programazioak "Kale Antzerkia bultzatuz" programaren bitartez sustatzea. Agindu honen helburua da 2011. urtean aire zabaleko gune publikoetan euskal antzerki-konpainiek egiten dituzten ikuskizunen programak garatzeko gastuak partez ordaintzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

Laguntza hauek eskatu ahal izateko, udalek, koadrillek eta mankomunitateek edo haien udal erakunde autonomoek nahitaezkoa izango dute baldintza hauek betetzea: antzezleku egokiak izatea, seinalezlatuak eta mugatuak, indarreko legediak eskatzen dituen segurtasun-neurri guztiak beteko dituztenak, bai eta programatzen diren ikuskizunetarako erantzukizun zibileko aseguruak eta artisten gela eta aldagela moduan erabiltzeko moduko lokalak ere; programaren alderdi tekniko guztiak koordinatuko dituen pertsona arduradun bat izatea; dagokion aurrekontu-partida izatea konpainia edo artista parte-hartzaileak kontratatuzko gastuei aurre egiteko, bai eta ikuskizunek sortzen dituzten ekoizpen-gastuei aurre egiteko ere.

Dirulaguntza horietarako, guztira, 90.000 euro erabiliko dira. Hartzaileak izango dira 20.000 biztanletik gorako herriak (25.000 euro), 20.000tik 10.001era biztanleko herriak (25.000 euro), 10.000tik 5.000ra biztanleko herriak (20.000 euro) eta 5.000 biztanletik beherako herriak (20.000 euro). Iaz, programa abian jarri zen urtean, udalek aurkeztutako 23 proiektu lagundu ziren, eta 73.000 euro pasatxo erabili ziren.